

ENPRESAK – BAZKIDE PLANA

Agiri honek LABORAL Kutxaren «Bazkide plana» sustapena zehazten du.

1.- Sustapenaren datak

Sustapena 2024ko urtarrilaren 01ean hasi eta 2024ko abenduaren 31n amaituko da. Hala ere, eten edo bertan behera utzi ahal izango da edonoiz, horretarako bidezko arrazoirik bada. Sustapenaz baliatu ahal izateko, adierazitako epearen barruan eman beharko zaie alta polizei, nahiz eta efektu-datak 2024ko abenduaren 31ra arteko muga izango duen.

2.- Xede-taldea

LABORAL Kutxako bezeroak, bizitza-aseguru LABORAL Kutxaren bidez kontratatuta ez dituztenak.

3.- Bazkide planaren sustapenak

Enpresako 2 bazkidek gutxienez bizi-taldea berria kontratatzen badute, 100 euro itzuliko dira polizako eta pertsonako, lehen urtean soilik.

- Sustapen honek eskatzen du gutxienez 2 bazkidek parte hartzea eta, beraz, 2 poliza behintzat kontratatzea.
- Enpresaren administratzaile, ahaldun edo ordezkari jarduten dutenak hartuko dira bazkidetzat.
- Enpresa izango da aseguru-hartzailea.
- Dirua itzuliko da, era berean, enpresak Seguros Lagun Arorekin bizi-taldea-aseguru bat kontratatuta badu LABORAL Kutxan eta beste pertsona batentzako bizi-taldea-aseguru kontratatzen badu. Enpresa batek LABORAL Kutxan bizi-taldea-aseguru bat kontratatuta duela esateko, enpresa horrek 300 eurotik gorako prima duen bizi-taldea-aseguru izan behar du kontratatuta. Eskaintzatik kanpo geldituko dira finantzaketa-eragiketei lotutako polizak.
- Sustapenaz baliatzeko eskubidea ematen duen poliza ordaindu ezean, LABORAL Kutxak eskubidea izango du bezeroaren kontuan egindako ordainketa berreskuratzeko.
- Sustapeneko polizaren efektu-dataren ondorengo 90 egunetan itzuliko da dirua, polizaren helbideratze-kontuan sarrera eginez.
- Ordainketa urtekoa izan beharko da eta LABORAL Kutxan egon beharko du helbideratuta.
- Gehieneko eragiketa-kopurua: 100 eragiketa.

BIZITZA produktuaren baldintzak:

- Gutxienezko prima: 300 €.
- Modalitateak: Bizitza+, Optimoa eta Bizitza Emakumea.
- Ez dira sartzen LABORAL Kutxaren finantza-eragiketa berriei (hipoteka-bermedun maileguari edo berme pertsonaleko maileguari) lotutako polizak.

4. Baldintza orokorrak

- Eskaintzak aseguru-poliza berrietarako soilik balio du, betiere kanpainak irauten duen bitartean kontratatzen badira.
- Arriskuak konpainiaren kontratazio-arauen barruan hartuko dira.
- Sustapena ezin da erabili beste kanpaina edo sustapen batzuekin batera.
- Ordainketak LABORAL Kutxan egon beharko du helbideratuta.
- Polizaren bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros izango da.

Sustatzailea

Aseguruen bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros SLU da, banka-aseguruetakoko operadore lotetsia, eta Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearekin. Erantzukizun Zibila eta Finantza Ahalmena estalita ditu, indarrean dagoen legediaren arabera.
Arriskuaren aseguratzailea: Seguros Lagun Aro SA, Seguros Lagun Aro Vida

Aplikazio-eremua

Seguros Lagun Aroren banka-aseguruetakoko operadore lotetsia den Caja Laboral Popularren banaketasarearen bidez kontratatutako aseguruetan aplikatuko da kanpaina. Caja Laboral Popular Bitartekarien Erregistro Administratibo Berezian dago inskribatuta, C572F20022109 zenbakiarekin.